

BALIO KORPORATIBO PROPOSAMENA

Guk “Rainergy” izeneko produktu berritzaile bat sortu dugu, eta honen helburua euriarekin energia lortzea da. Ideia sinplea dirudi, baina benetan berritzailea da: euri tantak gure gailuaren goiko aldeko plakara erortzen direnean, tanten kolpeak energia elektrikoa sortzen du. Energia hori bateria batean bilduko da, eta gero mugikorrak, ordenagailuak edo edozein gailu elektroniko kargatzeko erabiliko da.

Gure proiektua kaxa bat izango da, goiko aldean plaka sortzaile batekin. Plaka horrek euri tantak jasotzen ditu, eta talkaren ondorioz energia sortzen du. Barrualdean bateriak egongo dira energia metatzeko. Kaja tamaina desberdinetakoa izango da:

- Txikiak, etxeko terrazetan jartzeko eta energia kopuru erabilgarria lortzeko,
- Handiagoak, energia ahalik eta gehien biltzeko leku zabaletan edo zelaietan kokatzeko.

Horrek esan nahi du euria egiten duen bakoitzean energia sortzen dela, eguzkia atera beharrik gabe edo haizea egin beharrik gabe. Euriaren indarra aprobetxatzen dugu, eta horregatik gure produktua oso berezia eta berritzailea da. Gaur egun ez dago horrelako produkturik merkatuan; gurea berrikuntza hutsa da.

Uste dugu Rainergy produktua bereziki egokia izango dela energia berriztagarrien aldeko eta ingurumenarekiko arduratsuak diren pertsonentzat, eta euri asko egiten duten lekuetan bizi direnentzat —adibidez, Euskal Herrian edo iparraldeko beste eskualde batzuetan. Horrelako lekuetan, euriaren bidez lortutako energia ia “gratis” izango da, behin produktua ordainduta.

Baina, gure arazoa da konpetentzia handi bat dugula, eguzki plakak. Hauek, ere energia berriztagarria sortzen dute gure produktuak bezala. Baina, gure produktuak, tamaina desberdinetako diren tokietan ezberdinetan jarri ahal izango dira eta horrek bereizten du eguzki plaketatik.

Gure produktuak hainbat abantaila ditu: ingurunea zaintzen laguntzen du, energia aurrezten du eta jasagarritasuna sustatzen du. Teknologia aurreratua erabiltzen du, sentzore piezoelektrikoak eta mikroturbinak barne, energia modu eraginkorrean sortzeko. Egia da prezioa pixka bat altua izan daitekeela, baina euri askoko lekuetan azkar konpentsatzen da. Gainera, ez dugu ia konpetentziarik, gaur egun ez baitago beste inor halako produktua merkaturatzen. Horrek gure produktua merkatuan oso bereizgarri egiten du.

Gainera, Rainergy bat dator Garapen Jasagarriko Helburuekin (GIH / ODS):

- 7. Energia eskuragarria eta garbia
- 9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
- 13. Klima-aldaketaren aurkako ekintza



